

Ezpalak

JON TORNER

Patxi Larrionek historiari buruzko bloga hasi du ARGIA.com-en




PATXI LARRION historian aditu eta ARGIA aldizkariko kolaboratzaileak *Ez gara hutsaren hurrengoak* izeneko bloga sortu du ARGIA.com-en. Historia kontuak izango ditu hizpide iruindarrak, “historiaren istorioak”, bere hitzetan. Egilearen asmoa ez omen da tradizioari traizioa egitea, “baina nork daki”. (www.argia.com/ez-gara-hutsaren-hurrengoak)

Gipuzkoaren jatorriari buruzko DVDa kaleratu du Nabarralde

NABARRALDE elkarteak Gipuzkoaren jatorriari buruz orain arte gehien zabaldu den tesiaren aurka egiten duen dokumentala plazaratu du. Bertan azaltzen da 1.200. urtean Gipuzkoa eta Gaztelaren artean ez zela inongo itunik izan eta Aitzorrotz mendian bederatzi hilabete iraun zuen borrokak izan zirela. Gipuzkoa ordura arte Nafarroako erresumaren parte zela azaltzen da dokumentalean, eta azkenean, indarrez pasa zela Gaztelako lurralde izatera. Ruben Marcillak zuzendutako DVDa atzo Donostian aurkeztu zuten Getaria eta Arrasateko alkateak bertan zirela. Angel Rekalde gidoiaren egileak eman zituen azalpenak

Alberto Barandiaran

kazetari altsasuarrak *Veleia afera* liburua (Elkar) plazaratu du. Iruña-Veleiako erromatar garaiko aztarnategian egindako aurkuntzen eta horien



inguruan sorturiko polemikaren kronika egin du Barandiaranek. Indusketan lan egindako arkeologoen hitz egin du, bertan aurkituriko grafitoen benetakotasuna eta faltsutasuna defendatzen duten txostenen edukiak jaso, gaia jarraitu duten adituen iritzia bildu... Kazetariaren hitzetan, “osoagoak dira Veleiako piezak faltsuak direla dioten txostenak”.

Joxerramon Bengoetxeak

(Irun, 1963) jaso du Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria, Euskal Herriko kulturarekin duen konpromisoagatik. Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) Zuzenbidea, Soziologia eta Zuzenbidearen Filosofiaren teoriaren irakasle eta Katedraduna da Bengoetxea, eta Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko kidea.

Ornitorrinkus

egitasmoak musika garaikidea, elektronika eta bertsoak uztartzen dituen 12 piezako CD-liburuxka sortu du. Maialen Lujanbiok (ahotsak eta hitzak), Judith Monterok (saxofoia) eta Xabier Erkiak (elektronika eta zaratak) 2006an abiatu zuten ekimen hori. Taldeari buruzko informazioa eta emanaldi batzuetako irudiak www.ornitorrinkus.org webgunean aurkituko dituzue.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan) e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

